

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



GOIZUETA AMABIRJIN JAIK

«Guztiok elkarrekin Goizueta gara!»

Atzo eman zioten hasiera Goizuetako fiestei; Unai Miranda alkatea buru zutela, udal korporazio berriak bota zuen aurreneko itxaferoa; bertsoan ere egin zuten.

SORPRESA prest zutela adierazi zioten egun batzuk lehenago Kronikari udal korporazio berriko kideek, eta halaxe izan zen. Bertsoan eman zieten hasiera herriko fiestei Unai Miranda alkatea, eta beste bost zinegotziek: Alaitz Eskuderok, Iñaki Etxeberriak, Ana Uitzik, Maialen Apezetxeak eta Igaratza Apezetxeak.

«Ongi etorri guztioi aurten-go festara» kantatu zuten hasiteko, bertsoari hasiera emanez. Eta jarraitu zuten: «errespetuz bada, egun eta gaba». Eta elkarlanerako mezua ere zabaldu zuten, bukatzeko: «guztiok elkarrekin Goizueta gara!».



Ohi bezala, txupinazoaren ondoren atera ziren Goizuetako erraldoi eta buruhaundiak herrian zehar.

Bertsoaren ondoren, Igan-dea txaranga zoriortzeko aprobetxatu zuen Miranda alkatea, 25 urte bete dituztela-eta.

Erraldoi eta buruhaundiek jarraitu zuten, gero, eta ordutik aurrera, ez da festa gogorik faltatu.

Dianak animatuko du egunaren hasiera gaur, eta entzierroa izanen da, gero. Gauera arte izanen da zer gozatua, Amabirjin egunean. II



Udal korporazio berriak eman zion hasiera fiestari.



25 urte bete ditu aurten Igan-dea Txarangak.

ASTE NAGUSIA, DONOSTIAN

Egun osoan zehar, Zuriola Street Food, Kursaaletan terrazan; eskulangintza azoka Clara Campoamor plazan.

Goizean, Euskal Herriko Nekazal Produktuen VIII. Azoka berezia, Loiola kalean.

Arratsaldean, Arte Nagusia: Emakumeak artea sortzen, Kontxa pasealekuan.

10:30-14:30, Arte Azoka, Bulebarren.

11:00, Paseo Berriko I. igerialdia.

11:00, Tai Ji, hastapena Easo Plazan.

11:00, Aste Nagusiko II. Legatza Saltsa berdean lehiaketa, Matia kalean.

11:00-14:00/16:00-22:00,

Puzgamiak Aitzol parkean (Amara Berr)

11:30-13:30/17:00/19:00, Kulki, Herri Kirol parke tematikoa, Matian.

11:30-13:30/17:30-20:30, Zura eraldatzeari buruzko erakuste-tailerra.

12:00-16:00, Waterpolo erakustaldi partehartzailea, Nautikoan.

12:00, Arkaitz Añorgako dantzariak, parte Zaharreko kaleetan.

12:00, Herri dantza, Aitzol parkean.

12:00, Beti bogan txaranga Amaran.

12:30, Erraldioen konpartsak, erdian.

13:30-14:30, Maren, folk-pop.

Kursaaletan Urumea terrazan.

15:00-18:00, Donostia eta Irungo

erraldioen erakusketa, Gipuzkoa

plazan.

16:00-18:00, 'Donostia Hiria' Aste

Nagusiko emakumezkoen II. Water-

polo tomeoa (Finalak), Nautikoan.

16:00-17:00, Arte Nagusia, Kontxa

Pasealekuan.

16:30, III. Bandera Aste Nagusia.

Mundaiz zubitik.

17:15, Zaldi lasterketak Urrezko kopa

51. edizioa, Hipodromoan.

17:30, Hator Magiara, Kursaaletan

Urumea terrazan.

17:30, Txiki chef tailerrak, Aitzol

parkean.

17:30, Azken Balea, ikuskizuna.

Katalunia plazan.

18:00-20:00, Waterpolo erakustaldi

partehartzailea, Nautikoan.

18:00, Erraldoi eta buruhaundiak,

Gipuzkoa Plazatik abiatuta.

18:00, Zezenak, Ilunben.

18:30, Joselontxos, Antiguian.

19:00-22:00, pintxo-potea, Grosen.

19:30, Irun Hiria Musika Banda,

Bulebarren.

19:30, Sardin-jatea, Easo plazan.

19:30, Urrezko kopa aizkolariak,

Trinitate plazan.

20:00, Voces Navarras jotak,

Konstituzio plazan.

20:00, Maren, Kursaaletan terrazan.

22:45, Su Artifizialen Nazioarteko 56.

Lehiaketa Kontxako badian. IP

Innovative Pyrotechnik (Alemania).

23:15, Zinea Ondarretan.

23:30, Zezensuzkoa, Miramar kaletik.

23:30-03:30, Kursaal Gune Zabala.

DJ Gaua Kursaaletan terrazan.

23:30, Rally Deluxe orkestra,

dantzadia Easo plazan.

23:30, Suaia eta Ama Rebel, reggae,

Bulebarren.

23:30, Grupo Imperial, Aitzol parkean.

23:30, Ezten giro, Antiguian.

23:30, Kora Senegal, Katalunia

plazan.

23:30, Turistrendo antzerkia,

Gipuzkoa plazan.

23:45, Alex Ubago, Saguesen.

Piraten egitaraua

23:05, Javi (Ze Esatek!) akustikoa,

Trinitate plazan.

23:05, Kontzertuak: Izaki Gardenak,

Madeleine, Grises. Flamenkan.

GAUR, ABUZTUAK 15, Amabirjin eguna

07:30, Diana, dultzaineroekin.

08:00, Entzierroa, Lasturko zezenekin.

10:30, Meza Nagusia eta ohiko prozesioa.

12:00, Erraldoiak eta Buruhaundiak dultzaineroekin herrian zehar.

12:00, Pilota partiduak:

Gazteen artean: Ohian Legarreta-Xuban Iturbe, eta Aiur Elizazu-Eukeni Etxenike.

Lehendabiziko mailako afizionatuak: Apezetxea-Murgiondo, eta Etxezarreta-

Arrate.

13:30, Igan-dea Txaranga.

17:30, Zezenak Lasturren eskutik.

19:00, Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Julio Soto eta Aitor Sarriegi.

Gai-jartzailea: Aritz Zerain

Ondoren, Igan-dea Txaranga.

20:30, Bingoa Goitikoren alde, ikastolan.

21:30, Dantzaldia Ikastolan, DJ Mikeltxirekin.

21:45, Afari Herrikoia Umore Ona elkartearen.

00:30, Kalejira.

sulabe

Valella okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

MENDILUZE OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerarioorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA



GAUR Lainotuta eta euri pixka batekin hasiko da eguna gaur. Egunaren lehenengo zartian xirimiria egingo du, lainoak direla-eta. Arratsaldean, aldiz, atertzer egingo du. Tenperaturak, behera: **Min.15° / Max.21°**



BIHAR Eguzki-giroa bueltatuko da, bihar. Egunaren hasieran lainoak izango badira ere, desagiten joango dira. Haizea ahul ibiliko da, eta tenperaturak gora egingo du. **Min.12° / Max.26°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



ASTIGARRAGA SANTIOMENDIKO JAIK ETA SAN ROKEKO JAIK

Santiomendiko jaiek lekukoa gaur, eta San Rokek erreleboa, bihar

Gaur ospatuko dira Santiomendiko jaiak. Dianak emango dio hasiera egunari eta afari herrikoi batekin agurtuko dituzte jaiak, gaualdean.

EGUN osoko festa izan ohi da Santiomendin, auzoko jaiak ospatzeko, eta halaxe egingo dute gaur ere.

Goizean sendo esnatzeko, diana egongo da goizeko 10:00etan, eta jarraian, auzotarrek egindako sagardo eta tortila lehiaketaz gozatzeko aukera izango da, 11:00etan hasita.

Eguerdiko 12:00etan zaldi demarekin gozatu ederra hartuko dute auzotarrek, eta jarraian bazkari herrikoi egingo dute Larrarte sagardotegian.

Digestioa egiteko denbora nahikoa egongo da, arratsaldeko 18:00etan hasiko baitira herri kirolak.

Oraingo honetan, desafioa egingo dute, segan eta aizkoran. Lau partaidek hartuko dute parte: Iban Pardo (Euskal Herriko txapelduna), Suhari Irazustabarrena, Suhari Rodriguez, Paolla eta Jokin Basozabalek, hain zuzen.



Trikitilariak egun osoan zehar arituko dira giroa jartzen.

Bukatzeke, afari herrikoi batekin agurtuko dituzte Santiomendiko jaiak.

Ermitan izango da festa, bihar

Hala ere, Santiomendin jarraituko du jai-giroak bihar ere. Orduan, San Roke izango da protagonista nagusia, eta ermitaren ingurua, festaren lekuko.

Goizeko 11:00etako mezarekin hasiko dira ekintzak, bertan. Ondoren, eguerdiko 12:00etan dantzatzeko dute Astigar dantza taldeko dantzariak, atarian.

Imanol Ituño magoaren ikuskizuna izango da, segidan. Bazkariaren ondoren, Alaiki taldeak jarriko du dantzan auzoa. ||

HERNANI EMAKUMEZKOEN ARRAUNA

Ligaren barruan gaur Castron; eta kanpo larunbatean, Urumean

Gaur, goizeko 11:45etan, ETE ligako emakume arraunlariak izango dira nagusi Castronko itsasoan barrena. Larunbatean ligaz kanpo arituko dira.

GAUR, goizeko 11:45etan, Castronko itsasoan ETE Ligako emakume arraunlariak arituko dira, 2.778 metroko distantzian, hain zuzen. Bi luze eta ziboga bakarra egingo dituzte.

Hamaika traineruk hartuko dute parte, bi tandatan. Lehenengoan 5 talde ariko dira: Hercos, Lapurdi, Ondarroa, Hernani eta Isuntza. Sailkapen nagusian zazpi eta hamaikagarren postuetan dauden traineruak dira, hain zuzen; Hernani zortzigarrena da 59 punturekin, eta Isuntza du aurretik, 10 puntu gehiagorekin. Bigarren tandan, berriaz, 6

Hamaika traineru izango dira gaur Castron; bi txandatan jokatzeko dute bertako bandera lortzeko.

talde izango dira; San Juan, Kaiku, Deusto, Tolosaldea, Zumaia eta Hibaika. Azken biak aurreneko postuan daude berdinduta, 118 punturekin.

Larunbatean, ligaz kanpokoa

Ez da, ordea, aste honetako estropada bakarra izango.

Izan ere, Maialen traineruko neskak Donostian izango dira, Urumean barrena antolatuta duten estropadan. Arratsaldeko 17:30etan hasita izango da, Mundaiz zubitik.

Honek Ligarako punturik emango ez badu ere, lehiaketako giroan murgilduta jarraitzeko balioko die hernaniarrei. Izan ere, Liga bukaera gertu dago: hurrengo astean, hilaren 24 eta 25ean jokatzeko dituzte azken estropadak, eta oraindik ere sailkapenean kokaren bat gora egiten saiatuko dira. Gero, gainera, Kontxako sailkapen estropada etorriko da. Ez da lanik izango, alferrikakorik. ||

HERNANI ERRUGBIA

Partidu berezia etzi, liga hasi aurretik

Hernanik larunbatean emango dio hasiera denboraldiari, arratsaldeko 18:30etan Landaren

LARUNBAT honetan, arratsaldeko 18:30etan Euro Basque Rugby Challenge 1. jardunaldiari hasiera emango dio Hernanik, eta lehen partidua Aviron Bayonnais Rugby Bren aurka izango da.

Datorren astean, Hernaniko errugbi taldeko mutilek Getxo izango dute aurkari moduan.

Hernaniko errugbi elkarteak adierazi du, aurrean duten proiektu honek arrakasta izateko, guztion parte hartzea ezinbestekoa izango dela. Hori dela eta, Landarera gerturatzeko eta Hernaniko taldea animatzeko deia egin

Guztion parte hartzea ezinbestekoa dela adierazi dute errugbi taldekoek. «Animatu eta etorri Landarera gure taldea animatzera» azpimarratuz

nahi dute.

Beraz, larunbat arratsalde honetan, Landaren giro paregabeaz gozatzeko aukera egongo da. Hernaniko mutilek herritarren bultzada bat behar baitu denboraldia ezin hobe hasteko. ||

ARANO

San Rokeren omenez txistulariak, bihar

San Roke eguna ospatuko dute Aranoko ermitan ere. Handik eta hemendik bertaratutako txistularien laguntza izanen dute, horretarako. Goizeko 10:00etan elkartuko dira plazan, eta txistu doinuekin zipritinduko dute herria, arratsaldera arte. ||

ASKATASUNAREN EGUNA

Orreaga taldeak, Pasai Donibanera joateko deia egin du

Gaur goizeko 11:30etan, Pasai Donibaneko Santiago plazan izango da ekitaldia. Orreaga taldeak, erresistentzia nazionalerako deia egiteko asmoarekin sortutako ekitaldia da gaurkoa. Nafarroako Erre-suma da Euskal Herriaren estatua lelopean egina, hain zuzen. ||

EREÑOTZU DENDA

Ereñotzuko dendak bihartik aurrera atea irekita

Astelehenetik gaur arte itxita egon da Ereñozuko denda. Bihar irekiko ditu berriro atea. ||

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldetan laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA